



Greba orokorra Hego Euskal Herrian

Grebak Araban izandako arrakasta azpimarratu zuten sindikatuek

Milaka lagunek hartu zuten parte arratsaldeko manifestazioan

Greba orokorrak izandako arrakasta nabarmendu zuten atzo sindikatueta ordezkariek manifestazioa bukatu ondoren. UGT ezik gainontzeko sindikatuek bederatzi mila langile inguru bildu zituzten istilurik gabeko manifestazioan.

FELIX IRIARTE / GASTEIZ

Arrakasta izan zen LAB, CCOO eta ELA sindikatueta ordezkariek erabili zuten hitza grebaren balorazioa egiteko. «Araba osoak egin du greba» esan zuten ELAkoak Enparantza Berrian, CCOOekin batera egindako manifestazioaren amaiera ekitaldian. Mari Cruz Vicente CCOOekoak, berriz, grebaren eragina 14-D eguneko bezalakoa izan zela esan zuten, eta langile guztiak zoriandu zituen deialdiari jarraitzeagatik.

Greba Madrileko Gobernuak «langileen kontra» bultzatu nahi dituen neurrien erantzun «egokia» izan zela nabarmendu zuten ELA eta CCOOeko arduradunek. «Dekretua Gobernuaren asmotan izebergaren muturra baino ez da, gero gizarte segurantzaren erreforma eta osasunaren pribatizazioa bait datoz» esan zuten ELAkoak. CCOOeko ordezkariek berrindustrializazioaren garrantzia azpimarratu zuten, eta Gobernuaren lehen helburua hori



Gasteizko atxilotuak aske utxi zituztenean.

TXABARRI

behar duela izan adierazi zuten.

Xabier Elorriaga LABekoak grebak izandako arrakasta azpimarratu zuten Ama Zuriaren enparantzaren. «Euskadi hondoratzen eta zapaltzen ari dira» esan zuten eta aurrerantzean izango diren mobilizazioen abiapuntutzat jo zuten atzoko greba.

BEDERATZI MILA MANIFESTAZIOAN Arratsaldeko bost terdian Bilboko enparantzaren UGT ezik gainontzeko sindikatuek deitutako manifestazioari eman zioten hasiera. UGTk ez zuten parte hartu Hego Euskal Herrian grebarako

deialdia egun bat aurreratu zelako. Goizean, hala ere, piketeetan eta protesta ekitaldietan izan ziren, eta horien artean Txarli Prieto PSE-PSOeko batzarkide arabarra.

Bederatzi mila langile guztira izan ziren manifestaldian. ELA eta CCOOek irekitzen zuten, 'Euskadi dekretuaren kontra' zioen pankartaren atzean. Bi mila bostehun langile inguru pankartaren atzean, soldatetan ere europarrak izatea eskatuz.

Bigarren multzoa LABena zen. 'Euskal Herria etorkizunaren alde' pankartaren atzean lau mila pertsona inguru joan ziren

Ama Zuriaren enparantzaren. Lana, amnistia eta Salto del Negro presoeekin elkartasuna eskatu zuten LABekoak.

USTk sei inguru langile inguru bildu zituen, eta horien atzetik Gabilondo enpresatik kaleratutako langileek elkartasuna eskatu zuten, ESK-ko kideei bidea irekiz. Hauen pankartak beharrezkoa izanez greba eta ekitaldi gehiago egingo dituztela iragarri zuten. Guztira mila langile inguru ziren. Eta manifestazioa itxeko CNT sindikatu. Sindikatu anarkistak lauhun langile inguru bildu zituen, eta Corcuera legearen kontra oihukatu zuten.

Erantzunik zabalena industria eta zerbitzu alorretan izan zen

F.I. / GASTEIZ

Sindikatu greba deialdiak jarraipen zabal izan zuten Araban, batez ere industria eta zerbitzu alorretan. Administrazio langileek ere greba egin zuten neurri handi batean eta Osakidetza eta irakaskuntza izan ziren eragin gutxien izan zutenak. Hala ere, Osakidetza langileen % 80k egin zuten greba, irakaskuntza bezala.

Industrian 50 langile baino gehiagoko enpresa guztiek itxi zituzten atek, batzutan —Arregi eta BH esaterako— piketeen bitartean ondoren izan bazen ere. SEA Enpresarien sindikatuak ere onartu egin zuten greba arrakatsua izan zela. Agiri baten bitartez grebaren eragina «oso zabal» izan dela adierazi zuten, %

75 euren esanetan. Halaber piketeen zereginaz kexatu ziren.

Zerbitzuetan greba nabaria izan zen. Sindikatu esanetan gutxienezko zerbitzuetakoak baino ez zuten lan egin, eta kasu batzuetan horiek ere ez. Autobus publikoak, esate baterako, goizeko zazpietan atera ziren baina autobus bat berak ere ez zuten bidea bete piketeen eraginagatik. Hamarretan berriro atera ziren, baina hiru autobus bakarrik.

Osakidetza eta irakaskuntza grebaren eragina murriztagoa izan zen. Hala ere, Txagorritxu eta Santiagoko eritxeetan langileen % 80k babestu zuten greba deialdia eta besteetan gutxienezko zerbitzuak bete ziren. Lezan, Errioxako herrian aldiz, grebariak % 15 baino ez ziren izan. Irakaskuntzan, ikastolek greba



Istilurik izan zen Gasteizen atzo goizean.

TXABARRI

egin zuten, baina irakaskuntza pribatu eta publikoan % 80k.

Aiara, Lautadan, Errioxan eta

Gorbeia inguruan, greba orokorra egin zuten industria, kutxa, eta dendetan. Gainera Laudion

lauhun pertsona manifestatu ziren eguerdian, Araian berrehun eta Agurainen beste lauhun.

«Hamar minutu barru aske utziko ditut»

F.I. / GASTEIZ

Gasteizko instrukzio epaileak lan dexente izan zuten atzo, berak aitortu zuenez. Goizeko lehen orduetan Arturo Val del Olmo USTko idazkari nagusia eta Ernesto Fernandez sindikatu bereko militantea atxilotu zituen Poliziak, pikete batean ari zirelako.

Eguerdiko kontzentrazioa bukatuta, Ama Zuriaren enparantzaren bildutako guztiak komisaldegira abiatu ziren atxilotutako askapena exigitzeko. Ordurako hirugarren bat ere atxilotuta zegoela jakin erazi zuten megafoniatik.

Bildutako hiru mila lagun inguru jo eta ke ari ziren oihuka, epaileak hitz egin nahi zuela adierazi zuenean. «Orain pasako dira komisaldegitik eta hamar minutu barru aske utziko ditut» esan zuten.

Esan eta izan. Agindutako hamar minutuak igaro ondoren berriro mikrofonoa hartu eta norbaitek hirugarren atxilotuaren berri balu berarengana joateko eskatu zuten, Poliziak ez zuela beste atxilotarik egin ziurtatu bait zion.

Laster atera ziren USTko sindikalistak, jendearen txaloen artean eta ondoren istiluak hasi ziren. Bi polizia, kaleko jantziekin, korrika bizian atera ziren norbait atxilotzeko asmoz. Gerorago Iosu Txabarri EGUNKARIAko argazkilaria karretea eskatu zioten.

Epaileak hori ikusi zuenean, karretea kendu eta berak errebelatuko zuela esan zuten. «Polizien aurpegiak estaliko ditugu, eta argazkia publikatzeko prest egongo da» esan zuten.